

65
ZINE
BI

International Festival
of Documentary
and Short Film of Bilbao
November 10-17
2023

ARAUDIA

SAIL OFIZIALA – FILM LABURREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

1. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia – ZINEBI izaera lehiakorreko nazioarteko adierazpen zinematografikoa da, eta Film Ekoizleen Elkarteen Nazioarteko Federazioaren (FIAPF) aintzatespena du. Jaialdiak lehiaketak (Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa, eta ZIFF – *Opera prima* Film Luzeen Nazioarteko Lehiaketa) eta programazio paraleloa ditu.
2. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren – ZINEBIren 65. edizioa Bilbon egingo da, 2023eko azaroaren 10etik 17ra.
3. Jaialdiaren antolatzailea Bilboko Udala da, honako erakunde hauen lankidetzarekin: Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (ICAA – Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren bidez).
4. Hollywoodeko Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiak Oscar® sarietarako “Jaialdi Kalifikatzaile” gisa aitortu du Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia – ZINEBI. Horrek esan nahi du Hollywoodeko Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiako Hautaketa Batzordeak automatikoki hartuko dituela aintzat Oscar® sarietako hautagaitzetarako ZINEBI Sari Nagusia irabazten duen film laburra eta Film Labur Dokumental Onenaren Mikeldi sariaren irabazlea.
5. Espainiako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiak Goya sarietarako “Jaialdi Kalifikatzaile” gisa aitortu du Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia – ZINEBI. Horrek esan nahi du Espainiako Film Labur Onenaren Sari Nagusia irabazten duen film laburra zuzenean inskribatuko dela Goya sarietan.
6. Zinema eta Telebista Arteen Britainiar Akademiak Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia – ZINEBI Estatuko jaialdi kalifikatzaile bakarra izendatu du BAFTA Sarietako Britainia Handiko Film Labur Onenaren kategoriarako.
7. Europako Zinemaren Akademiak Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia – ZINEBI hautatu du, urtero EFA (European Film Awards) sarietarako hautagai den film labur bat aukeratzen duten jaialdietako bat izateko. Horrek esan nahi du Nazioarteko Epaimahaiak Europako film labur bat aukeratzen duela ZINEBI 65ko Sail Ofizialeko Film Laburren Nazioarteko Lehiaketan egon diren film laburren artean, 2024ko Europako Film Labur Onenaren Sarirako hautagai izateko. Europa aipatzean, kasu honetan, Europako Zinemaren Akademiak ezartzen duenez, Europako kontinente osoa hartzen da barne, bai Europar Batasuneko estatu kideak, bai estatu kide ez direnak, Israel eta Palestina, kasurako.

BALDINTZAK

8. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak – ZINEBIk fikzio, animazio eta dokumental kategorietako film laburrak onartzen ditu Sail Ofizialeko Film Laburren Nazioarteko Lehiaketarako. Ekoizleek beraiek edo bere legezko ordezkariak formalizatu behar dituzte film laburren izen emateak.

9. Sail Ofizialeko Film Laburren Nazioarteko Lehiaketako film laburrak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera egindakoak izan behar dira, eta horiek hautatzeko beharrezkoa da filmak Festhome plataformaren bidez bidaltzea (www.festhome.com) 2023eko uztailaren 18a baino lehen.
10. Gehienez ere 30 minutuko iraupena duten film laburrak onartuko dira.
11. Honako hau aurkeztu behar da izena ematean: izena emateko formularioa eta ekoizleak film laburrari buruz gehitu nahi duen informazio egokia. Dokumentu guztiek euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez idatzita egon behar dute.
12. Ez da onartuko aurretik Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdian – ZINEBIn ikusgai egon den film laburrik, ezta aurreko deialdietan baztertua izan denik ere.
13. EAEn ekoiztako film laburrek (fikzioa, dokumentala eta animazioa kategorietan), Sail Ofizialeko Film Laburren Nazioarteko Lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, estreinaldi izan behar dute Estatuan. Baldintza hori betetzen ez duten EAeko film laburrek Bertoko Begiradak – Film Laburrak sail paraleloan parte hartu ahal izango dute.
14. Ingelesaz bestelako hizkuntzetan hitz egiten diren film labur guztiak ingelesezko azpitoluekin bidali behar dira. Bidalitako filmak irakurtezinak badira edo kaltetutako artxiboetan badaude, ez dira kontuan hartuko hautaketarako. Bidaltzailearen ardura da bidaltzen dituen artxiboak egoera onean daudela bermatzea.
15. Onartuko diren film labur guztiak Hautaketa Batzordeak ikusi behar ditu erabaki baino lehen. Jaialdiak, hautaketa prozesuan, lehenetsuna emango die ZINEBIn munduko, nazioarteko edo Europako estreinaldia egitea ahalbidetzen duten obra interesgarriak.
16. Araudi honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez dituzten film labur inskribatuak ez ditu kontuan hartuko Jaialdiak.
17. Bidalitako filmen ekoizleek edo legezko arduradunek izena eman ondoren konpromisoa hartzen dute ZINEBIn jakinarazteko pelikulan gertatzen den edozein aldaketa.
18. Hautaketa Batzordea Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren – ZINEBIn zuzendaritzak berak izendatuko du, eta Sail Ofiziala – Nazioarteko Lehiaketa ataleko filmen aukeraketan aholkatuko du. Hautaketaren azken erabakiaren erantzukizuna Jaialdiaren zuzendaritzak izango du.
19. Jaialdiak ez die inolako tarifarik ordainduko film laburrei Sail Ofizialeko Film Laburren Nazioarteko Jaialdian parte hartzeagatik.
20. Film laburren bidaltzaile guztiei 2023ko irailaren lehenengo hamar egunetan zehar jakinaraziko zaie Sail Ofizialeko Nazioarteko Film Laburren Lehiaketan sartu diren (ala ez). ZINEBIn 2023ko urria amaitu baino lehen emango du jakitera film laburren aukeraketa. Hautatutako filmen arduradunek ez dute aurretik jakitera emango aukeraketa.

21. Sail Ofizialeko Nazioarteko Lehiaketako emanaldien iraupena, gehienez ere, eguneko 6 ordukoa izan daiteke.
22. Jaialdiaren zuzendaritzak erabakitzen du zein egun eta ordutan erakutsiko diren film parte-hartzaileak.
23. Jaialdiak beretzat gordetzen du eskubidea, Sail Ofizialeko Film Laburren Nazioarteko Lehiaketan hautatutako film laburrak Espainian geoblokeatutako online plataforma batean ikusgai jartzekoa. Horiek Jaialdia egiten den egunetan soilik egon ahal izango dira ikusgai, eta emanaldi edo ikusgai egoteko egunak mugatzeko aukera egongo da ekoizleekin edo haien legezko ordezkariekin ados jarrita.

PROIEKZIOETARAKO KOPIAK ETA MATERIALAK

24. Jendaurrean erakusteko, derrigorrezkoa da Sail Ofizialean parte hartzen duten film guztiek ingelesezko azpigituluak edukitzea. Proiektzioetarako formatua koderik gabeko DCP formatua da.
25. Bidalitako kopiak errebisatu egingo dira eta disko gogorretan multzokatuko dira geroago Jaialdiko aretoetan proiektatzeko.
26. Disko gogorrak Jaialdiko artxiboetan gordailututa geratuko dira eta ez dira inolaz ere erabiliko beste proiektzioetarako eskubideen jabeen berriazko baimenik jaso ezean.
27. Digitalki bidalitako proiektzio-kopiak segurtasun-neurri handienekin babestuko dira, pirateria saihesteko.
28. Sail Ofizialean parte hartzeko hautatutako filmen proiektzio-kopiak (DCP) 2023ko irailaren 25ean egon beharko dira ZINEBIren barne-zerbitzarian. Epemuga hori zorrotz errespetatu behar da, Jaialdiak ahalik eta erakustaldi eta azpigitulurik onena bermatu ahal izan dezan Jaialdiaren proiektzioetan.
29. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Jaialdia den ZINEBIK proiektzio-materiala digitalki bidaltzea gomendatzen du eta hori posiblea ez balitz proiektzioetarako kopiak honako posta helbide honetara bidali behar dira: Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia – ZINEBI, La Perrera Eraikina, Sabino Arana 50, 1go solairua, 48013 Bilbo (Espainia).
30. Jaialdiaren aseguru etxeak bermatu egiten du kopia fisikoek behar bezala babestu eta kontserbatzen direla, garraio enpresak Jaialdiaren bulegoetan entregatzen dituenetik itzulera momentura arte.
31. Jaialdia amaitutakoan, proiektzioetarako materiala bidaltzaileak izena emateko formularioan adierazitako helbidera itzuliko da. Bidalketa gastuak parte hartzailearen kontura izango dira eta itzulketa gastuak, berriz, Jaialdiak ordainduko ditu.
32. Hautatutako filmetako baten ekoizleek edo legezko ordezkariak honako material hauek bidali beharko dituzte 2023ko irailaren 29a baino lehen, eta ZINEBIK filmak eta Jaialdia sustatzeko erabili ahal izango ditu:
 - a. Filmaren hiru irudi finko horizontal gutxienez (JPG edo TIFF formatuan, 10 zm x 15 zm-ko

tamainarekin eta 300 puntu hazbeteko).

b. Filmaren zuzendariaren edo zuzendarien argazki bat (JPG edo TIFF formatuan, 10 cm x 15 cm-ko tamainarekin eta 300 puntu hazbeteko).

c. Filmaren posterrak, flyerrak eta sustapen-materiala.

d. Ingeleseko filmaren elkarrizketen zerrenda bat, dagozkien denbora-kodeekin.

e. Filmaren trailer baterako fitxategia edo esteka (gehienez hiru minutukoa).

f. Kalitate handiko ingelesezko azpigituluak dituen filmaren azken bertsiara pasahitz bidez babestutako fitxategi edo esteka bat.

NAZIOARTEKO EPAIMAHAIA ETA SARIAK

33. Sari ofizialak Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren – ZINEBIren zuzendaritzak izendatutako Nazioarteko Epaimahaiak erabakiko ditu.
34. Sail Ofizialeko Film Laburren Nazioarteko Lehiaketako Nazioarteko Epaimahaiko kide kopurua ezin da bostetik beherakoa izan, eta beti bakoitia izan behar da. Dena dela, espainiarrak kideen % 40 izango dira gehienez ere. Epaimahaiko Idazkaria Jaialdiko zuzendaritzak izendatuko du, eta deliberazioetan parte hartu ahal izango du, bozkatzeko eskubiderik gabe.
35. Nazioarteko Epaimahaiak bere barne araudia ezarriko du, Jaialdiko zuzendaritzarekin batera. Bere erabakia behin betikoa izango da eta jarraian adierazten diren sariak ezin dira hutsik utzi, ezta *ex aequo* banatu ere:
 - a. ZINEBIKO Sari Nagusia (7.000 €) Sail Ofiziala – Nazioarteko Film Laburren Lehiaketa osatzen duten film labur guztiak eskuratu ahal izango dute.
 - b. Euskal Zinemaren Sari Nagusia (6.000 €) Euskal Autonomia Erkidegoan ekoiztutako eta Sail Ofizialean – Film Laburren Nazioarteko Lehiaketan lehiatzen diren film labur guztiak eskuratu ahal izango dute.
 - c. Espainiako Zinemaren Sari Nagusia (6.000 €) Espainian ekoiztutako eta Sail Ofizialean – Nazioarteko Film Laburren Lehiaketan lehiatzen diren film labur guztiak eskuratu ahal izango dute.
 - d. Film Labur Dokumental Onenaren Mikeldia (5.000 €) ZINEBIk Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa – Sail Ofizialaren barruan dokumentalen kategorian sailkatutako film labur guztiak eskuratu ahal izango dute.
 - e. Animaziozko Film Labur Onenaren Mikeldia (5.000 €) ZINEBIk Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa – Sail Ofizialaren barruan animaziozko kategorian sailkatutako film labur guztiak eskuratu ahal izango dute.
 - f. Fikziozko Film Labur Onenaren Mikeldia (5.000 €) ZINEBIk Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa – Sail Ofizialaren barruan fikziozko kategorian sailkatutako film labur guztiak aukeratuko dira.

36. Hona hemen Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren – ZINEBIren 65. edizioan emango diren beste sari batzuk:
- a. Publikoaren EITB Saria (3.000 €)
 - b. Cineclub FAS Saria (2.000 €)
 - c. UNICEF Saria
37. Sarien zenbateko ekonomikoa % 50ean banatuko da konpainia ekoizlearen eta errealizadorearen edo zuzendariaren artean.
38. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren – ZINEBIren 65. edizioan saritutako filmek nahitaez eta ezinbestean zehaztu beharko dute Jaialdian lortutako aintzatespena jaialdiaren ondorengo poster, komunikazio, publizitate eta komunikazioko kopien kreditu-tituluetan, sare sozialetako komunikazioa eta gainerako euskarrietakoa barne.
39. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren – ZINEBIren 65. edizioko sariak 2023an ordainduko dira, kasu bakoitzean egokitu litezkeen kenkari fiskalak aplikatuta. Bestalde, saridunak, zergapeko bikoitza saihesteari begira, bizileku duen herrialdeko agintaritzak fiskalak igorritako egoitza fiskaleko agiri bat aurkeztu behar du 2023ko abenduaren 15a baino lehen.
40. Araudia ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen da. Zalantzarik sortuko balitz, gaztelaniazkoa izango da bertsio nagusia.
41. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren – ZINEBIren 65. edizioan film labur baten izena emateak araudi honetan ezarritako baldintzak onartzea dakar. Era berean, Jaialdiko zuzendaritzak interpretatu eta ezarriko du araudia. Horretarako, FIAPFren Jaialdien Nazioarteko Araudian xedatutakoa hartuko du kontuan.

Bilbon, 2023ko martxoaren 13an